

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. LANDA HOTELAK ETA OSTATUAK. 2020KO OTSAILA

Euskal AEko hotel-establezimenduetako bidaiari-sarrerak % 15,2 gehitu dira 2020ko otsailean

Eguneko batez besteko tarifa (ADR) % 3,1 igo da, eta gela eskuragarriko diru-sarrerak (RevPar) % 11,2

Euskal AEko hotel-establezimenduetako sarrerak 206.297 izan dira 2020ko otsailean, aurreko urteko hilabete berean baino 27.189 sarrera gehiago, hau da, % 15,2ko igoera, Eustatek egindako datuen arabera. Lurraldeka, % 16,5 igo dira Araban, % 16,1 Bizkaian eta % 13,5 Gipuzkoan.

Bestalde, 2020ko otsailean Euskal AEko hotel-establezimenduetan 372.130 ostatu-gau erregistratu dira; hau da, aurreko urteko otsailean baino % 14,2 gehiago, hau da, 46.272 ostatu-gau gehiago. Ostatu-gauek bilakaera positiboa izan dute hiru lurraldeetan urte artean: Araban % 15,7 hazi dira, Bizkaian % 12,5 gehiago eta Gipuzkoan % 16,0.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako gaudiak, sarrerak, batez besteko egonaldia eta betetze-maila. 2020ko Otsaila

	Gaudiak		Sarrerak		Batez besteko egonaldia		Betetze-maila (%)				Gelatiko Errentagarritasuna	
	2020/02	m/m-12 (%)	2020/02	m/m-12 (%)	2020/02	2019/02	2020/02	p.p.*	2020/02	p.p.*	ADR (eurotan)	RevPar (eurotan)
EUSKAL AE	372.130	14,2	206.297	15,2	1,80	1,82	45,7	3,5	58,3	4,3	68,8	40,1
Estatukoak	249.570	11,9	141.289	14,1	1,77	1,80	-	-	-	-	-	-
Atzeritarrak	122.560	19,1	65.008	17,6	1,89	1,86	-	-	-	-	-	-
ARABA/ÁLAVA	50.516	15,7	27.279	16,5	1,85	1,87	43,0	3,2	56,3	4,5	63,1	35,5
Estatukoak	40.791	18,4	22.500	17,2	1,81	1,79	-	-	-	-	-	-
Atzeritarrak	9.725	5,5	4.779	13,7	2,03	2,19	-	-	-	-	-	-
Vitoria-Gasteiz	38.384	5,7	19.786	6,4	1,94	1,95	45,2	1,9	62,0	4,4	56,9	35,3
BIZKAIA	182.392	12,5	99.919	16,1	1,83	1,88	45,0	1,1	59,1	1,5	72,0	42,5
Estatukoak	116.759	4,9	66.153	9,9	1,76	1,85	-	-	-	-	-	-
Atzeritarrak	65.633	29,2	33.766	30,7	1,94	1,97	-	-	-	-	-	-
Bilbao	126.377	20,0	70.691	23,5	1,79	1,84	49,8	2,2	63,9	1,8	76,7	49,1
GIPUZKOA	139.222	16,0	79.099	13,5	1,76	1,72	47,9	6,9	58,0	7,7	66,6	38,6
Estatukoak	92.020	19,3	52.636	18,5	1,75	1,74	-	-	-	-	-	-
Atzeritarrak	47.202	10,0	26.463	4,8	1,78	1,70	-	-	-	-	-	-
Donostia / San Sebastia	80.039	14,3	47.029	12,1	1,70	1,67	51,9	7,1	61,0	7,8	76,2	46,5

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajezko puntuko aldea
Iturria: Eustat. Establezimendu turistikoko hartzaileen inkesta


Euskal AE osoan, Estatutik etorritako bidaiarien sarrerak % 14,1eko aldaketa positiboa izan dute 2020ko otsailean, aurreko urteko otsailarekin alderatuta. Jatorria atzerrian dutenak, berriz, % 17,6 igo dira. Arabaren kasuan, sarrerak bilakaera positiboa izan dute bi jatorrietarako, % 17,2koa Estatutik etorritako pertsonen kasuan eta % 13,7koa atzeritarren kasuan. Bizkaian, Estatuko bidaiarien sarrerak % 9,9 egin du gora, eta atzerrikoak, berriz, % 30,7. Gipuzkoan, Estatuko sarrerak % 18,5 igo dira; atzerriko sarrerak, berriz, % 4,8.

Batez besteko egonaldiaren iraupena 1,80 egunekoa izan da otsailean, 2019ko otsailean batez beste izandako 1,82 egunen azpitik. Araban, iazko 1,87 egunetatik aurtengo otsailean 1,85 egunetara jaitsi da; Bizkaian, 1,88 egunetatik 1,83 egunetara jaitsi da; Gipuzkoan, berriz, 2019ko otsailean lortutako 1,72 egunetatik joan den otsailean lortutako 1,76 egunetara igo da batez besteko egonaldia.

Plazakako betetze-maila ehuneko 3,5 puntuz handitu da Euskal AE osoan, 2019ko otsaileko %42,2tik aurtengo otsaileko %45,7ra. Araban ehuneko 3,2 puntuko igoera izan da, % 39,8tik %

43,0ra. Bizkaian ehuneko 1,1 puntuko igoera erregistratu da, 2019ko otsailean okupazioa % 43,9koa izatetik joan den otsailean % 45,0koa izatera. Gipuzkoan, okupazio-maila ehuneko 6,9 puntu igo da, aurreko urteko otsaileko % 41,0tik azken otsaileko % 47,9ra.

Euskal AEko hotel establezimenduen okupazio-mailaren eboluzioa lurralde historikoaren arabera



Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Gelen okupazio-maila ehuneko 4,3 puntu igo da Euskal AE osoan, eta gelen araberako okupazio-maila % 58,3koa izan da. Araban portzentajezko 4,5 puntu egin du gora, eta % 56,3tan kokatu da; Bizkaian ehuneko 1,5 puntu igo da, eta % 59,1era iritsi da; Gipuzkoan, berriz, portzentajezko 7,7 puntu igo da, eta gelakako okupazio-maila % 58,0koa da.

Hotelen okupazio handiena, plazen arabera, Donostian (% 51,9), Bilbon (% 49,8) eta Gipuzkoa Kostan (% 48,5) gertatu da.

Asteke eguna kontuan hartuta, asteburuetan gertatzen da okupaziorik handiena Euskal AE osoan 2020ko otsailean, plaza okupatuena % 59,6rekin, eta gainerako egunetan erregistratutako okupazioa % 39,4koa da.

Azkenik, **sektorearen errentagarritasun-adierazleei** dagokienez, Euskal AEko hotelen eguneko batez besteko tarifa (ADR) 68,8 eurokoa da 2020ko otsailean, urtebete lehenago baino % 3,1 handiagoa. Batez besteko tarifa 63,1 eurokoa da Araban (% 9,3), 72,0 eurokoa Bizkaian (% 3,8ko igoera) eta 66,6 eurokoa Gipuzkoan (% 0,2 gehiago).

Gela eskuragarriko diru-sarrerak (RevPar) hotel-establezimenduen okupazio-mailaren araberakoak dira, eta 40,1 eurokoak dira 2020ko otsailean Euskal AEn, 2019ko otsailean baino % 11,2 gehiago. Araban RevPar 35,5 eurokoa izan zen, Bizkaian 42,5 eurokoa eta Gipuzkoan 38,6 eurokoa.

Landa-ostatuetan, sarrerak % 12,8 igo dira, eta ostatu-gauak % 8,9, 2020ko otsailean

Otsailean 6.948 sarrera erregistratu dira Euskal AEko landa-ostatuetan, aurreko urteko hil berean baino % 12,8 gehiago. Lurraldeka, Araban % 12,4 igo dira, Bizkaian % 20,4 eta Gipuzkoan % 9,8. Izan dira 941 atzeritar-sarrera, zeina den % 21,6ko hazkundera aurreko urtekoen aldean, eta sarrera guztien % 13,5 da hori. Bestalde, Estatutiko sarrerak % 11,5 igo dira.

Euskal AEko landa-turismoko establezimenduek eta landetxeek 14.853 ostatu-gau izan dituzte otsailean, hau da, % 8,9ko igoera izan dute aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta. Lurraldeka, Araban % 4,0 igo dira, Bizkaian % 13,7 jaitsi dira, eta Gipuzkoan % 22,8 igo dira.

Euskal AEko landetxeetako gaualdiak, sarrerak, batez besteko egonaldia eta betetze-maila. 2020ko Otsaila

	Gaualdiak		Sarrerak		Batez besteko egonaldia		Plazakako betetze-maila (%)	
	2020/02	m/m-12 (%)	2020/02	m/m-12 (%)	2020/02	2019/02	2020/02	p.p.*
EUSKAL AE	14.853	8,9	6.948	12,8	2,14	2,21	14,3	0,4
Araba/Álava	2.281	4,0	1.247	12,4	1,83	1,98	8,7	-0,8
Bizkaia	3.499	-13,7	1.784	20,4	1,96	2,74	12,5	-1,5
Gipuzkoa	9.073	22,8	3.917	9,8	2,32	2,07	18,5	2,3

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Plazakako betetze-maila % 14,3koa izan da, 2019ko otsailean baino ehuneko 0,4 puntu gehiago. Arabak ehuneko 0,8 puntuko atzerakada izan du, eta plazen betetze-maila % 8,7koa izan da. Bizkaian betetze-maila % 12,5ekoa izan da, eta ehuneko 1,5 puntu egin du behera 2019ko otsailaren aldean; Gipuzkoan, berriz, ehuneko 2,3 puntu egin du gora, eta % 18,5era iritsi da aurtengo otsailean.

Azkenik, bidaiari bakoitzeko batez besteko egonaldia 2,21 egunekoa izan zen 2019ko otsailean, eta 2,14koa azken hilabeteen.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62